

Audioaren erreferentzia: Bagoaz A2 B17 film laburra

Maila: A2

Helburua: Norberak etorkizunerako dituen asmoak eta planak adierazi eta taldean, planik onena aukeratu.

Funtzioak: Etorkizunerako asmoak eta planak adieraztea.

Azken ekintza: Binaka, egoera aukeratu eta norberak dituen planak eta asmoak adierazteko elkarrizketa sortu. Talde handian, planik onena aukeratu, arrazoiak eman.

Adierazpide linguistikoak:

- Aditz aspektua: Geroaldia,
- Bestelakoak: -T(z)EKO asmoa izan / Denborazko aditzondoak: laster, datorren urtean (astean),.....
- Lexikoa: filma, zuzendaria, errodatu, ekoiztu, aztertu,.....

1. IKUSI AURRETIK

1.1 Nik haxe egingo dut.

Bideoan agertuko den egoeraren testuinguruan kokatzeko, hiru egoera abiapuntu hartuta, horietan egin daitezkeen zenbait plan-adierazpen emango dizkiegu. Binaka, egoera horietan zein plan egin daitezkeen adierazteko eskatu, eman dizkiegunak hautatuta eta nahi izanez gero, beraiek beste batzuk proposatuta. Binaka elkarri esan diotena apuntatzea komeni da. Ondoren, bakoitzak taldekoei kontatuko die bikote-lagunak esan diona. Adibide hau emango diegu:

Ane ezkontzen denean zuriz jantziko da eta lagun guztiak gonbidatuko ditu. Eta jubilatzen denean baratza bat hartu eta han lan egingo du.

2. IKUSI BITARTEAN

2.1 Zer gertatzen da?

Une honetan, bideoaren zati bat ikusiko dute, eta ondoren, ulermen orokorra proban jar dezaten bi galderaren erantzun zuzenak aukeratu. Hemen erantzunak:

Josuk zertarako egin nahi du filma? **Master-bukaeraren proiektua egiteko**

Zertaz hitz egingo du Josuren filmak? **Emakumeen zapalkuntzaz hitz egingo du.**

2.2 Honelakoa izango da nire film laburra.

Ulermen xehea ebaluatzeko asmoz, bideo osoa ikusi bitartean, zenbait esaldi egia edo gezur diren identifikatuko dituzte. Ondoren, binaka eskatu erantzunak alderatzeko, eta ulertu dutela ziurtatze aldera komenigarria litzateke dauden gezurrak zuzentzea. Ariketa egin ondoren, binaka erantzunak alderatu ditzatela, eta beharrezkoa balitz bideoa berriro ikusteko aukera eman, azpтитulu eta guzti. Hemen erantzunak:

Filmaren protagonistak senar-emazteak izango dira. **E**

Filmean, senarrak bere emazteari etxeko lanetan lagunduko dio. **G**

Filmak emakumeen egoera orokorra aztertuko du. **G**

Amaiaren ustez, Josurentzat emakumeak bere esklaboak dira. **E**

Josuk Amaiari filmeko zuzendari izateko eskatu dio. **G**

Azkenean Amaiak ez dio filma egiten lagunduko. **E**

3. ENTZUN ONDOREN

3.1 Josuren proiektua.

Atal honetan, batetik, bideoan gertatu denaz ondo jabetu ote diren ebaluatu ahalko dugu, eta bestetik, azken atazarako ondo etorriko zaizkien egituretan erreparatuko dute (asmoak adieraztekoak, aditza geroaldian). Bideoan gertatu dena kontatzen duen laburpen-testua emango diegu, horiek aukera zuzenarekin osatzeko. Ariketa bakarka egin ondoren, jarri binaka, eta erantzunak alderatu ditzatela.

Hemen ariketaren erantzuna:

Amaia eta Josu kalean ari dira paseatzen. Josu masterrerako proiektuaz hitz egiten ari da Amaiarekin. Josuk laster masterra **bukatuko du** eta proiekturako film labur bat **egiteko asmoa dauka**. Josu pozik dago filma egiteko ideiarekin. Dena pentsatua dauka. Bere filmak emakumearen zapalkuntza **aztertuko du** eta horixe esan dio Amaiari. Amaia, hori entzun duenean, asko harritu da. Film hori **drama izango da** eta senar-emazteak izango dira protagonista. Josuk pentsatu du filma **zuzentzea** eta Amaiak **ekoiztea**: aktoreak aukeratu eta errodatzea. Josuk Amaiari laguntza eskatu dio baina Amaiak **ez dio lagunduko**, Josuren proiektua delako.

3.2. Eta zuk, zer egiteko asmoa daukazu?

Azken atazan, asmoak eta planak adierazteko lehen ikusi dituzten egiturak modu librean praktikan jartzeko aukera izango dute. Abiapuntu modura, hiru egoera hipotetiko emango dizkiegu, irudi batzuekin lagunduta. Egoera horietako bat hautatu beharko dute, eta binaka, lagunarteko elkarrizketa laburra osatu eta idatziko dute, asmoak eta planak adierazten duena. Ondoren, taldearen aurrean elkarrizketa antzezteko eskatu, behar duen doinuera emanaz. Antzeztu aurretik, komeni da elkarrizketak hizkuntzaren aldetik, zuzen eraturata daudela ziurtatzea.

Elkarrizketa-adibide hau emango diegu:

- *Uf azkenean! Akabo ikasketak. Orain bizitzaz gozatzeraz.*
- *Bizitzaz gozatu? Ez al duzu ikasten jarraitzeko asmorik?*
- *Ez dut ikasteko gogorik, ez. Zuk ikasten jarraituko duzu ala?*
- *Bai horixe! Nik master bat egiteko asmoa daukat. Ondoren, Ginebrara joango naiz eta han sei hilabete pasako ditut praktikak egiten.*
- *Dena pentsatua duzu e! Ba, nik lanean hasteko asmoa daukat.*
- *Erraza dago ba! Eta non hasiko zara?*
- *Nire aitaren tailerlean hasiko naiz eta diru asko irabaziko dut.*

MATERIAL OSAGARRIA

Antzeko edukiak lantzeko sekuentzia hauek interesgarriak izan daitezke:

- [Dena ondo antolatuta](#) (A2B02) Hemen, planak egiteko eta zerbait egiteko gogoia adierazteko egiturak lantzen dira.
- [Joango gara hondartzara?](#) (A1B17) Planak eta gonbidapenak egiteko komunikazio-funtzioa lantzen da. Batez ere aditza geroaldian lantzeko aproposa da.

BIDEOAREN TRANSKRIPZIOA

JOSU.— Badakit zer egingo dudan masterra bukatzeko proiekturako!

AMAIA.— A, bai? Zer?

JOSU.— Film labur bat. Normalean, gaia aukeratzea izaten da zailena, baina ideia bat izan nuen, eta segidan oso erraza izan da dena. Nire film laburra emakumearen zapalkuntza aztertuko du.

AMAIA.— Zuk hitz egingo duzu horretaz? Josu, zure inguruko emakume guztiak zure esklaboak dira eta!

JOSU.— Hori ez da egia. Drama bat izango da eta senar-emazteak izango dira protagonista.

AMAIA.— Eta zein arazo jasango du emakumeak?

JOSU.— Senarrak ez dio lagunduko, ez etxeko lanetan, ez umeak zaintzen.

ETENA

AMAIA.— Dena prest daukazu?

JOSU.— Bueno, nik pentsatzen nuen nik zuzentzea eta zuk ekoiztea. Aktoreak aukeratu eta errodatzea!

AMAIA.— Zuk pelikula asko ikusi dituzu, e!

JOSU.— Bai, eta horrek ikuspegia zabaldu dit.

AMAIA.— Ez, ez, ez, ez. Zu pelikulero galanta zara!

JOSU.— Ez didazu lagunduko?

AMAIA.— Zure proiektua da, zuk egin behar duzu!

JOSU.— Baina artista ezin da horrelako txikikeriatan ibili.

AMAIA.— Ikusten? Orain ere zure esklabo! Tira, zuzendari jauna, goazen. Bestela ez gara fakultatera iritsiko!